



Euskararen berri onak

1.761. urte hartan Agustin Kardaberazek liburutxo bat argitaratu zuen: *Eusqueraren berri onak*. Titulu horixe hartzen dugu gaurko gure dossierrarentzat.

Zeintzu ziren berri onok? 1929an Manuel Larramendik argitaratua zuen *El imposible vencido*. Arte de la Lengua bascongada, bai eta 1745ean, *Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*. Horietxek dira Kardaberazek ematen dizkigun berri onak... Berri ona! Denek ezinazkotzat ematen zuten Euskararen gramatika: *Ezina egina! El imposible vencido!* Larramendiren garaipena mezutzen du.

Euskarak mendetan zehar iraun egin du bizirik, "añ berez eta beregan, añ argi eta garbi, bere erio eta arerio guzien damu gorri gaixtoan badere". Hizkuntza menperatua, gaztelania eta frantsesa hizkuntza handien menpean, iraun egin du euskarak. Horixe dugu lehen mezu pozgarria.

Baina... "alere asko, egieki, euskera galdu da". Gaurko garraisia bera zuen Kardaberazek orain dela bi mende baino gehiago. "Baña ori ezta euskararen, ezpada euskaldunen desonra: bada oiek polikitu, apañdu ta edertu bearrean, lotsarik gabe berak bere nagitasunez itxustu, larrutu ta desegin izan dute". Arerioak izan ditu euskarak kanpoan; baina horren atzerapenaren erantzule dira, hori lantzen eta erabiltzen saiatu ez direnak, erdaren (grezieraren, latinaren, gaztelaniaren edo frantsesaren) lilurak hartuta edo.

Euskaldunon egitekoa eta betebeharra seinatzen ditu Kardaberazek, euskarak aurrera egingo badu. "Ta lengo aitzakiarik orañ edolarik ez dute askok", Larramendiren liburuak gure esku ditugularik: ez euskararen baliorik ez, ez eta horren zailtasuna izan daitezke aitzaki orain, Kardaberazen ustez. Apezei gogoratzan die bereziki beren obligazioa: "Jaungoikoaren borondate jakiña da, aren fede eta legeko misterio ezjutatu ta dotriña zabaltzeko bear dena, sazerdote jaunen ministerio sagraduetan, euskeraz baizik emen egin ta esan bear ez dala".

Guztiaren azpitik bere baikortasuna aitortzen du berak: "Gure baserrietan jende prestuak dirauten artean, euskarak iraungo du". Gizaseme hadietan edo apezengan baino itxaropen handiago du baserri-tarrengan, euskararen iraupenerako: "Oiei (baserriarrei) lepoa ebaki edo bizia kendu gabe, euskara ezin utzi edo kendu diteke".

Azkenik, bere arrazoin teologikoa: "Gure pobretxo on askoren animak salbatzeko, euskarak burua jasotzea Jainkoak nai du".

Kardaberazen analisi sozio-linguistikoa ez digu aģian asko balio gaur; euskarak kalea eta lantegia, eta hiria, hartu beharko ditu, iraungo badu. Hor dago euskararen itxaropena, baserrian baino gehiago. Haren baliabide teologikoa, utilitarista eta oportunistak, aski bitxia gertatzen zaigu. ▶

Baina lau puntu jaso eta nabarmentzeko aukera ematen dugu:

a) Euskara galduz doa gaur ere oraindik; egoera larrian dago. Jakineko Euskararen borroka zenbakian esaten den bezala bezala: "Euskararen hiltzoria erreala da, ez da lantu erromantikoa". Egoera diglosiko honetan, arerio handiak eta gogorak ditu euskarak: funtsean euskara azpiratuaren eta erdara ezpiratzailen egoerari eutsi nahi dioten legeak, agintariak, erakundeak eta lagun guztiak dira euskararen arerioak, nahiz eta elebitasunaren ideologiari itxurak egin. Diglosiari eutsi eta euskara heriotzara eramaten duten guztien kontra borrokatu beharra daukagu.

b) Baina euskararen kinka larriaren eta hiltzoriaren erantzule ez dira haren zuzeneko arerioak bakarrik; euskaldun bakoitza eta guztiok gara erantzule. Euskara ikasteko, lantzeko eta erabiltzeko, hori zabalteko eta horren alde borrokatzeko eginkizuna da gu guztiona. Aurrena, berriz, euskararen egoeraz eta etorkizunaz jabetzea da. Geure gizarteari eta Herriari zor diegu geure hitza eta geure ekintza, Herri bat egin nahi badugu; bai eta geure Eliz elkarteari ere, euskal Elizak herritarra sortu nahi badugu.

c) Euskararen berreskurapena eta normalkuntza ez dira, ordea, bakarkako eginkizunak: Herri honen eginkizun koliktiboak dira. Erakundeena noski; eta horiei etengabe eskabide zorrotza ipini beharko diegu eta kontu argia eskatu, gure Herriaren hizkuntzari buruz daramaten politika dela eta. Baina ez dugu erakundeen eta agintarien eskuetan utzi behar, berea bait du bere hizkuntza Herriak, eta funtsean berak bakarrik aterako du aurrera, berreskuratuko eta normalduko. Herri osoa horretaz jaberaztea da aurrena; bere ahalegina, militantzia, lana eta borroka ipintzea, ondoren. Askapen-borroka du Euska Herriak euskararen aldekoa, euskara azpiratuaren bitartez bait dago menperaturik, besteren artean, Herri hau.

d) Baina esperantza eta baikortasuna aldarrikatzera gatoz batez ere hemen. Eginkizunaren, lanaren, obligazioaren eta borrokaren gain, liberazioaren esperantza kantatzera gatoz: Euskararen berri onak mezutza. Askapen mezua dakarkigu gaur Euskarak. Herri zapalduaren liberaziorako bidea bait da hizkuntza azpiratuaren berreskurapena.

Itzaropenerako eta baikortasunerako oinarrik ba dugu. Euskarak ba ditu gaur berri onak: urrats handiak eman ditu, bere normalkuntzaren bidean eta gaurko kulturaren alor eta maila guztietara iristen: gaurko kultura adierazteko balio duela, eta beste edozein hizkuntzak bezala hori emateko gauza dela agertzen ari da. Unibertsitatea irabazten ari da euskara. Nolabait "el imposible vencido", ezina egina, gertatzen ari da gaur ere berriro, euskara gaurko kulturako ezgauzatzat jotzen zutenen kontra, edo hartara baztertu nahi zuten guztien kontra.

Bestalde, eta lehen aipaturiko Jakin zenbakian ematen den inkestaren ondorioz, esan daiteke: "Euskadik euskalduna izan nahi du"; "Euskararen aldeko gogoia eta lehia biziki azkarra da Euskadin, euskaldun nahiz erdaldunen artean". Gogoia eta lehia horiek irauten duten bitartean, euskarak iraungo du, Kardaberazzen esperantza berrituz.

Itzaropenaren eta konfidantzaren mezua zabaltzeko nahi genuke hemen: euskara ikasteko usteona, ikasi ezinean erdi etsita daudenei, edota ikasi nahian ahalegin bizitan ari direnei; gure Herriak bere herritasuna eta bere hizkuntza berreskuratuko dituen ziurtasuna; gure hizkuntza azpiratuaren bidez gure Herriak bere askatasuna lortuko duen esperantza.

Begira dezagun aurrera; aurrera begira jarri dezagun euskara, ez atzera begira, J. L. Arangurenekin batera esperantza indartzeko; latina jartzen du berak atzera begira dagoen hizkuntza; euskarak ere arrisku horixe du; bestela, berriz, "vive y, sobre todo, vivirá mirando adelante y pasando de ser nada menos, pero también nada más que ritual, a convertirse en la forma de vida del pueblo vasco y de su creativa personalidad comunitaria" (España: Una meditación política, 67-68).

Horixe nahi dugu: Euskara bihurtzea Euskal Herriaren "bizikera". Benetan ez dugu uste hizkuntza sakraturik dagoenik: ez latina eta ez euskara. Ez dugu nahi euskara, honen mitologia egiteko, ez honen liturgia egiteko. Baina guk ere sinesten dugu, Jainkoak Herri honek bere burua jasotzea nahi duela, Herri honen askatasuna nahi duela. Euskararen berreskurapena da askatasunerako bidea. Euskararen Berri Ona!

Horregatik, euskararen gain negar egin beharrean, horren nekeak eta zailtasunak errepikatu beharrean, poetarekin eta kantariarekin abestuko dugu: Euskara, jalgi hadi plazara! Euskara, jalgi hadi dantzara!